

ENEKO BIDEGAIN



Kepa Anabitarte

Bizitza bat herriari eskainia



Kepa Anabitarte.

Bizitza bat herriari eskainia

Eneko Bidegain

Saio eta Testigantza, 269

978-84-9172-410-0

2024 - 216 or. - 17 x 24 cm

22,00 €

Kepa Anabitarte (Pasaia, 1934) Euskal Herriaren askatasun egarriak mugitu du bizitza osoan. Familia euskaldun eta abertzale batean sortu zen Trintxerpe auzoan, langileen borroken eta zapalkuntza gogorraren testuinguruan. Gazte-gaztetatik ohartu zen Euskal Herriaren menderakuntzaz, eta berehala hartu zituen ardurak, herriaren askapena helburu.

ELA sindikatuan hasi zuen ibilbide militantea, eta kartzelan egon zen hargatik. Municheko 1962ko kongresuaren ondoren, sindikatuaren lehen zatiketa handiaren eragileetako bat izan zen, herriaren askatasunera heltzeko bideei eta analisisiei zegozkien funtsezko desadostasun politikoaren ondorioz. ELA-berri taldeko arduradun izan zen geroztik. ESB alderdiaren sorreran ere parte hartu zuen, kooperatibismoan aritu zen, Gipuzkoako industria guneeetako arduradun izan zen, Nabarralderen bultzatzaileetako bat, Orreaga iritzi taldeko kide, *Gara* egunkaria argitaratzen duen EKHE SA-ko lehendakari, eta abar.

Kepa Anabitarteren biografia hau Euskal Herriko azken ehun urteetako kronika politiko bat da, oroz gainera. Bidean ezagutu dituen hainbat eta hainbat erreferentziazko laguni buruz eta gertakari politiko, ekonomiko eta kulturalen ari da liburua, bide horretan osatu duen pentsamendu politikoaren oinarriak azaltzeaz gain.



ENEKO BIDEGAIN

(Baiona, 1975)

Doktorea eta irakaslea da Mondragon Unibertsitatean, kazetari ohia eta euskaltzain urgazlea. 111 Akademia saria irabazi du *Bizitza éder* (2023) bere azken eleberriarekin. Aurrez *Lurralde eta Herria* (2018), *Lehen Mundu Gerra eta Euskal Herria* (2014) edota *Iparretarrak, erakunde politiko-armatu baten historia* (2007) saiakerak idatzi ditu besteak beste, eta *Anbroxio* (2002) eta *Mahatsaren begia* (2005) eleberriak ere bai.



948 326 535 • www.pamiela.com • soltxate@pamiela.com